

**BASAURIKO UDALAEAN KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI OROKORRAK.****LEHENA: Oinarrien xedea**

1. Honako oinarri hauen xedea da, Lan Eskaintza Publikoa betez, Basauriko Udaleko funtzionarioen eskaletan eta azpieskaletan sartzeko hautaprobaren deialdiak arautu behar dituzten arau orokorrak ezartzea.
2. Oinarri hauek oro har aplikatu beharko badira ere, hautaketa sistema, txanda, berariazko betekizunak, azterketak eta gainerako arau bereziak kasuan kasuko deialdiak arautuko dituzten berariazko oinarriek eraenduko dituzte, batez ere.
3. Deialdiko lanpostuetatik, Berariazko Oinarrietan azaldutako kopuruak gordeko dira minusbaliatuen txandaren eta barne sustapeneko txandaren bitartez betetzeko. Deialdi horietako lanposturik eman gabe geratuko balitz, hautaprobak gainditzeko eskatzen zen gutxieneko puntu kopurua eskuratu ez delako, txanda irekian eskainitakoekin metatuko da, deialdi irekietatik independente egin diren deialdien kasuan izan ezik, kasu horretan, hutsik uzten diren plazak inola ere ez zaizkie gehituko sistema irekian eskainitakoekin. Ezarritako bi sistemetako txanda bakoitzean betetzeko diren plazei erreparaturik, dagozkien berariazko oinarrietan zehaztutakoak izango dira, enplegu publikoaren eskaintza onartzen duen xedapenaren arabera.
4. Hautagai ezinduren batek parte hartzeko bi sistemetako edozeinetan gordetako kupoan egiten badu eta, dagozkion hautaprobak gainditu arren, plazarik lortzen ez badu, eta parte hartu duen sistemako (irekia edo barne sustapena) txanda orokorreko beste hautagaiek baino puntu gehiago lortu baditu, txanda orokor horretan sartuko da bere puntu hurrenkeraren arabera.
5. Betetzeko baldintza jakinen bat ezarrita daukaten lanpostuak ezingo dira inola ere bete baldintza hori betetzen dutela egiaztatu ez duten hautagaiekin.
6. Deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da titularraren sustapen, erretiro, heriotza eta/edo plaza gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentziagatik hutsik gera daitezkeen lanpostu hutsen arabera, edota Basauriko Udaleko lanpostu zerrendan lanpostu berriak sortu direlako. Horretarako, 9.2.2 oinarrian aipatzen den oposizio faseko lehen hautaprobarako deialdia argitaratu baino lehenago, Giza Eskubideen Buruzagitzak txosten bat egingo du, zeinetan zenbat plaza hutsi bete behar diren zehaztuko duen, eta dagozkion Kalifikazio Epaimahaiari helaraziko dio.

**BIGARRENA: Betekizunak**

1. Hautaprobetan parte hartzeko honako betekizun hauek bete beharko dituzte hautagaiek:
  - a) Espainiar nazionalitatea izatea, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 57. artikuluan xedatutakoari kalte egin barik.
  - b) 16 urte edo gehiago beteta edukitzea eta gehieneko derrigorrezko erretiro adina gainditu gabe izatea, hala badagokio.
  - c) Zereginak betetzeko gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea, dagozkion funtzioak betetzea eragozten dion gaixotasunaren batek jota ez izatea, edo akats fisiko nahiz psikikorik ez edukitzea.

- d) Diziplinako espediente bidez zerbitzutik kenduta egon ez izana, Herri Administrazioei, konstituzio organoei edo Autonomia Erkidegoetako estatutu organoei dagokienez, aldi berean, ebazpen judizialaren arabera erabateko gaitasungabetzerik edo gaitasungabetze berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez eta, funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko ere. Beste estatu bateko herritarra bada, gaitasungabetua edo horren pareko egoera batean egon ez izana, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik izan ez izana.
  - e) Dagokion berriazko deialdian eskatzen den titulu ofizialaren edo homologatuaren jabe izatea, edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria eduki beharko da.
  - f) Indarrean dagoen arautegiaren arabera, ezintasunerako edo bateraezintasunerako lege arrazoirik ez izatea, salbu utziz haren arabera dagokion aukera eskubidea.
  - g) Hautaketa prozesu zehatzetarako berriaz ezarritako gainerakoak, deialdi bakoitzeko Berriazko Oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.
2. Honako oinarri honetan ezarritako betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan eduki beharko dira, era berean, hautaketa prozesuak iraun bitartean eta kontratatu edo bitarteko funtzionarioaren lanpostuaz jabetu arte eduki beharko dira, Berriazko Oinarrietan aurreikusitako salbuespenak salbuespen.
3. Ezinduentzat erreserbatutako kupoa: Ezinduentzat gordetako plazetara aurkezten direnek aitortua izan beharko dute, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, %33ko edo hortik gorako ezintasun gradua. Ezintasun gradu hori frogatzeko, Administrazio organo eskudunak (Foru Aldundietako, Autonomia Erkidegoetako edo IMSERSOko sail eskudunak) emandako ziurtagiria aurkeztuko da.
4. Barne sustapeneko sistema: Barne sustapeneko plazetara aurkezten direnek, 2.1. oinarriko betekizun orokorrez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte:
- a) Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izatea, aurkezten diren plazaren titulazio talde berean edo bat beheragoko titulazio taldean.
  - b) Parte hartzeko eskabideak aurkezten diren epemugako egunean, gutxienez, bi urteko antzintasuna edukitzea euren eskalan.
  - c) Zerbitzu aktiboan, horri asimilatuan edo zerbitzu berezietan egotea jatorriko eskalan.
- Baldin eta hautagaiak sistema honetan parte hartzeko baldintzak betetzen ez baditu, ofizios ulertuko da sistema irekian parte hartzea dela eskabidean egindako aukera.
5. Deialdi espezifiko bakoitzean hautagaiak sistema bakarrean parte hartu ahal izango dute, hau da, irekian edo barne sustapenekoan. Eskabidean jarri beharko da zein sistematan parte hartu nahi den, eta xede horretarako, bi eskabide eredu prestatuko dira. Nahi den sistema espresuki jartzen ez bada, edo deialdi bererako baliozko bi aukerak jartzen badira, hautagaiak sistema irekia aukeratzen duela ulertuko da.
6. Baldin eta, sistema irekian edo barne sustapeneko sisteman ezinduentzat gordetako plazetara aurkezteko baldintzak betetzen dituztenek, hautaketa prozesuan ezinduentzat gordetako plazetara aurkeztuz parte hartu nahi badute, aukera hori

markatu behar dute parte hartzeko eskabidean. Gainerako hautagaiek aukeratu duten sistemako txanda orokorrean hartuko dute parte.

### **HIRUGARRENA: Ezinduak**

1. Gainerako hautagaien baldintza berberetan parte hartzen dutela bermatzeko, hala eskatzen duten ezinduentzat behar dituzten arrazoizko denbora eta baliabide egokitzapen eta doikuntzak egingo dira hautaketa prozesuetan, betiere ezintasunak zerikusi zuzena badu egin beharreko hautaprobarekin.
2. Dagokion Kalifikazio Epaimahaiak ebartziko ditu, ezinduek aurkeztutako agiriak ikusirik, hautaprobak egiteko arrazoizko denbora eta baliabide egokitzapenen eta doikuntzen eskaerak.

### **LAUGARRENA: Eskabideak**

1. Eskabideak aurkezteko epea eta modua:
  - a) Berariazko oinarrietan zehazten diren plazak betetzeko hautaketa prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonak 20 egun naturaleko epea izango dute eskabidea aurkezteko, dagokion deialdiaren iragarkia Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.
  - b) Eskabideak Alkatzari zuzendu behar zaizkio, eta inprimaki eredu normalizatuan egin behar dira. Ereduak Basauriko Udaleko <http://web.basauri.net/PortalEmpleo/> Enplegu Publikoaren Ataritik behera kargatu daitezke. Halaber, Basauriko Udaleko Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan eskabideak eskuragarri daude dohainik.
2. Onartuak izateko eta, hala dagokionean, hautaprobetan parte hartu ahal izateko, hautagaiek eskabideko atal guztiak bete beharko dituzte. Hautagaiek adierazi beharko dute aurkezteko eskatzen zaizkien baldintza guzti-guztiak, aurkezteko epearen amaierari dagokionez beti.  
Horretarako, hautagaiek eskabideetako ataletan honako hauek jarri beharko dituzte:
  - a) Eskatzen diren datu pertsonalak.
  - b) Zein sistematan parte hartu nahi duten: sistema irekian ala barne sustapenekoan, berariazko oinarrietan xedatutakoaren arabera. Hautagaiek sistema bakarrean parte hartu ahal izango dute deialdi espezifiko bakoitzeko.
  - c) Ezinduentzat erreserbatutako kupoan parte hartzeko aukera, berariazko oinarrietan xedatutakoaren arabera, hautagaiak ezinduentzat erreserbatutako plazetara aurkezteko baldintzak betetzen baditu eta hala parte hartu nahi badu. Aukera hau egiten duten hautagaiek ezingo dute parte hartu dagokion deialdi espezifiko prozesu orokorretan, dela sistema irekian, dela barne sustapenekoan, hala ere, baldin eta hautagai ezinduren batek parte hartzeko bi sistemetako edozeinetan erreserbatutako kupoan egiten badu eta, dagozkion probak gainditu arren, plazarik lortzen ez badu, eta parte hartu duen sistemako (irekia edo barne sustapena) txanda orokorreko beste hautagaiek baino puntu gehiago lortu baditu, txanda orokor horretan sartuko da bere puntu hurrenkeraren arabera.
  - d) Zein eskala, azpieskala eta klasetara aurkezten den.
  - e) Oposizio faseko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, euskaraz edo gaztelaniaz.

- f) Euskara proba egiteko aukera, hizkuntza eskakizunak egiaztatze aldera, hautagaiak hala nahi badu.
- g) Ezinduek egoera hori adierazi behar dute eskabidean eta, hala badagokie, hautaprobak egiteko zein arrazoizko denbora eta baliabide egokitzapen eta doikuntza behar dituzten. Era berean, eta dagokion Kalifikazioko Epaimahaiak eskatutakoa badagokien ala ez ebazteko, egokitzapen horien onuradunek, eskabidearekin batera, aurkeztu behar dute ezintasun gradua kalifikatzeko eskumena duen organo teknikoaren Irizpen Tekniko Fakultatiboa, egiaztatzeko moduan urritasun iraunkorrak frogatuz, aitortuta daukaten ezintasun gradua eragin dutenak, hain justu.
- h) Ikasketa titulu ofiziala, parte hartzen den deialdian betekizun gisa eskatzen dena eta alegatzen dena.
- i) Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak<sup>1</sup>: Aurkezten diren deialdi bakoitzeko ordaindu beharko dute kuota lehiakideek, lanpostua zein titulazio taldetakoa den aintzat harturik, taula honi jarraiki:

Taldea	Kuota (€)
A1	20,68
A2	16,54
C1	12,40
C2	8,27
E edo AP	4,14

Dena dela, lanik gabe daudenek –eta dagokien lan eskaeraren txartela aurkeztuta– edo barne sustapeneko sistemaren bidez lehiatzen direnek ez dute azterketa tasarik ordaindu beharko.

Eskabidea aurkeztean emango den ordaintzeko aginduaren bitartez ordaindu beharko da tasa, zeina nominala eta indibidualizatua izango baita aurkezten den plaza bakoitzerako. BBK, Caixa, Banco Guipuzcoano...-ko bulegoetan egin ahal izango da ordainketa, baita Herritarren Arretarako Bulegoan ere, banku txartelaren bitartez, edo internet bidez. Lehiakideek ordainagiria gorde beharko dute (10. oinarria).

### 3. Eskabideak aurkezteko tokia:

- a) Eskabideak Basauriko Udaleko Erregistro Orokorrean –Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan– aurkeztu ahal izango dira, bai eta, Basauriko Udaleko Enplegu Publikoaren Atarian ere, dagokion sinadura elektronikoa sartzea beharrezko delarik.
- b) Ezinduak diren eta eskabidea bide horretatik aurkeztu nahi dutenek,aldi berean 4.2 oinarriko bigarren paragrafoko g) letran azaltzen den Txosten Tekniko Fakultatiboa aurkeztu beharrean badaude, agiri hori hurrengo bi paragrafoetan azaltzen diren bideetakoaren batetik aurkeztu beharko dute, Basauriko Udaleko Saileko foru diputatuari zuzenduta.

<sup>1</sup> Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasen handitzea 10 zk.ko Zerga Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzearen baldintza pean dago

- c) Era berean, eskabideak aurkeztu daitezke azaroaren 26ko 30/1992 Legeak — Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak— 38.4. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan. Posta bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak gutun azal irekian aurkeztu behar dira, postako funtzionarioek data eta zigilua eskabidean bertan jartzeko, ziurtatu aurretik.
- d) Eskabidea aurkeztean, baimena ematen da norberaren datuak (izen-abizenak eta telefono zenbakia) beste herri administrazio batzuei lagatzeko, datuok lanposturen bat premiaz betetzeko eskatzen badituzte.

### **BOSGARRENA. Publizitatea**

1. Kalifikazio epaimahaiak eratu dutenen izendapena, eraketa leku, egun eta ordua eta lehenengo proba leku, egun eta ordua «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko dira.
2. Bigarren proba eta hurrengoak egiteko iragarkia, hala badagokio, Hautaketa epaimahaiak argitaratuko du Udalbatzaren ediktu taulan, hasteko adierazitako ordua baino 72 ordu lehenago, gutxienez.  
Halaber, epaimahaiak Udalaren iragarki-oholean argitaratuko ditu gainditutako proben emaitza eta kalifikazioak eta merezimenduen balioestekak.
3. «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta iragarki taulan argitaratutako informazioa Basauriko Udalaren web gune ofizialean ere eskuratu ahal izango da, soil-soilik informaziorako.

### **SEIGARRENA. Hautagaiak onartzea**

1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako zerrenda onartuko da Alkatezaren Dekretuaren bitartez; bertan, baztertzeko arrazoiak eta eskabideko akats edo hutsuneak zuzendu behar dituzten kasuak zehaztu behar dira. Ebazpen hori «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da.
2. Akats edo hutsuneak zuzentzeko eskatzeko epea, 4.3. atalean adierazitako lekuen bitartez, 10 asteguneko izango da, ebazpena «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Ondoren, Alkatezak beste ebazpen bat emango du, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartzeko, eta ebazpen hori ere «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da.
3. Ezin izango da zuzendu eskabidea epez kanpo aurkeztu izana, ez eta, merezimenduak egiaztatzeko agirietan akats edo hutsuneak egon izana ere.
4. Hautagaiak onartzeak ez du esan nahi prozesua izapidetu bitartean baztertuta ez geratzeko eskubidea dagoenik, proba guztiak egin nahiz ez, baldin eta, aurkeztutako datuak edo agiriak egiaztatu ondoren, onartzeko eta hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatutako betekizunak betetzen ez direla ikusten bada. Kasu horretan, Epaimahaiak baztertzeko proposamen egokia egingo du, interesdunari entzunaldia eskaini eta gero Alkateza-udalburutzak ebazpen egokia eman dezan.
5. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen Dekretuan baztertu gisa agertu diren hautagaiek errekursoak aurkezten badituzte eta, hautaprobak egiteko egunean, errekurso horiek oraindik ebatzi gabe badaude, eragindako hautagaiek hautaprobak egin ahal izango dituzte, nahiz eta ez duten baliorik izango aipatutako errekursoak ezesten badira.
6. Edonola ere, interesdunek hautaketa prozesuan eskatzen zaizkien baldintzak betetzen dituztela aitortzeko, nahitaezkoa da haiek egiaztatzeko agiriak aurkeztea, 11. oinarriaren arabera; beraz, interesdunak betekizunak ez baditu agiri bidez egiaztatzen, hautaketa prozesuan parte hartuta eskura ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu.

### **ZAZPIGARRENA. Hautaketa prozesuaren garapena**

1. Proba bakoitzerako deialdi bakarra egingo da, eta egitera bertaratzen ez diren guztiak baztertuta geratuko dira.
2. Nortasun agiria eraman beharko da proba guztietara, edo bestela, Epaimahaiaren iritziz nortasuna behar bezala egiaztatzen duen beste edozein agiri. Edozein unetan, Epaimahaiak nortasuna egiaztatzeko eskatu ahal izango du.
3. Idatziz egin behar diren probak zuzentzean hautagaiak nor diren jakiterik ez dagoela bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu Epaimahaiak (horretarako, inprimaki normalizatuak erabiliko dira), jendaurreko saioan irakurtzea erabakitzen denean izan ezik. Egilea nor den jakiteko aukera ematen duten marka edo zeinuak dauzkaten proben egileak baztertuko ditu epaimahaiak.
4. Hautaprobea egiteko ordena ezarri behar denean, alfabetikoki hasiko da, Epaimahaiak proba egin aurretik egingo duen zozketari jarraituz.

### **ZORTZIGARRENA. Kalifikazio epaimahaiak**

1. Alkatetzaren Dekretuaren bitartez zehaztuko da hautaketa epaimahaikideen izendapena, bai eta, Epaimahaia osatzeko nahiz lehenengo proba egiteko lekua, eguna eta ordua ere.
2. Epaimahaiaren osaketa apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan ezarrita dagoenari egokituko zaio, eta hauek osatukoa izango da: epaimahaiburu eta idazkari bana eta lau epaimahaikide.
3. Epaimahaiak bere lanetan aholkulariak sartzeari erabaki ahal izango du, hautaketa prozesuak dituen hautaprobea guztietarako edo batzuetarako. Aholkulariek, hala ere, euren espezialitate teknikoetan baino ez dute jardungo.
4. Epaimahaia jardunean ibiltzeko, epaimahaiburua eta idazkaria, edo hala denean euren ordezkioak, eta epaimahaikide kopuruaren erdia bertaratu beharko dira. Erabakiak bertaratutako epaimahaikideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; berdinketa egonez gero, epaimahaiburu dagoenak ebatziko du, lehentasun botoaren bitartez. Epaimahaiaren jarduerarako prozedura, Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluaren xedatuta dagoenari egokituko zaio.
5. Epaimahaiburuaren eta haren ordezkioaren karguak hutsik badaude, gaixorik badaude edo legezko beste zergatiren batengatik bertaratzen ez badira, Epaimahaiko beste kide bat izango da ordezkio, lehentasun hurrenkera hau kontuan hartuta: lanpostu mailako osagarriarik handiena duena, antzinasuna eta adina. Idazkari titularraren eta bere ordezkioaren karguak hutsik badaude, gaixorik badaude edo legezko beste zergatiren batengatik bertaratzen ez badira, epaimahaiko beste edozein kide izango da ordezkio, Epaimahaiak gehiengoaren botoz hautatuta.
6. Administrazio prozedura erkidea arautzen duen araudian aurreikusitako inguruabar bat gertatzen denean, epaimahaiko kide direnak abstenitu egingo dira, eta izendatzeko eskumena duen organoari hala jakinaraziko diote; halaber, kasu horretan hautagaiek ezespena sustatu ahal izango dute.
7. Kalifikazio epaimahaiak –eta ez beste inork ere– eskumena izango du deialdiaren Oinarrien interpretazioari buruz agertzen diren zalantza eta galdera guztiak ebazteko, bai eta, hautaketa prozesuaren bilakaera egokirako hartu behar diren erabakiak hartzeko ere, aplikatu daitezkeen lege araudian edo Oinarrietan beraietan aurreikusita ez dagoen guztirako.
8. Interesdunek epaimahaiaren erabakien aurka egin ahal izango dituzte administrazio prozedura erkidea arautzeko araudian adierazitako modu eta epeetan.

### **BEDERATZIGARRENA. Hautatzeko prozedura eta proben kalifikazioa**



1. Oposizio, lehiaketa edo oposizio-lehiaketa sistemen bitartez egingo da hautaketa, deialdiaren Berariazko Oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.
2. Hautaketa prozesuetan beste fase bat ezarri ahal izango da prestakuntza ikastaroak eta praktika-aldiak gainditzeko, Berariazko Oinarrietan aurreikusitakoaren arabera
3. Hautaketa prozesuaren barruan lehiaketa fasea egongo balitz, prozesurako Berariazko Oinarrietan aurreikusitako espezialitateak gorabehera, honako arau hauek ere hartuko dira kontuan:
  - a) Eskabideak aurkezteko epearen barruan, merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dira. Jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak baino ez dira onartuko horiek behar bezala egiaztatzeko, eta horrela egin ezean, merezimenduak egiaztatu ez direla ondorioztatuko da.
  - b) Inola ere ezin izango dira balioztatu eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala justifikatu ez diren merezimenduak, edo eskatzaileak egindako baieztapenean bakarrik oinarritutakoak; era berean, ezin izango dira balioztatu aipatutako merezimenduak bidezko baremoaren arabera balioesteko beharrezko datuak ez dituzten agiriak.
  - c) Inola ere ezin izango dira balioztatu funtzionario izateko hautaketa prozesuetan egin beharreko proba gisa aurreikusitako prestakuntza ikastaroak, ez eta dagoeneko balioztatu diren beste batzuen eduki bera duten ikastaroak ere.
  - d) Eskabideak aurkezteko epea amaitu arteko merezimenduak balioztatuko dira.
  - e) Merezimenduak egiaztatzeko aurkezten diren agiriak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan behar dute. Kopia hauek, baliozko izateko, informazio hau eduki behar dute: data, izen-abizenak, NANA eta konpultsatzeaz arduratu denaren sinadura irakurgarria.
  - f) Igarotako denboraren arabera urteka, sei hilabeteka edo hilabeteka balioztatzen diren merezimenduak, alegatutako aldiak egunetan batuta balioztatuko dira, batura egin ondoren, alde batera utzita erreferentzia alditik beherako frakzioak. Eragin hauetarako, 365 egun naturalen batura hartuko da urtetzat; 180 egun naturalen batura seihilekotzat eta 30 egun naturalen batura hilabetetzat.
  - g) Lehiaketa faseak ez du baztertze izaerarik izango, eta bertan lortutako puntuak ezin izango dira kontuan hartu oposizio faseko hautaprobak gainditzeko.
  - h) Euskara eta informatika jakiteari dagokionean 9.7. eta 9.4. oinarrietan, hurrenez hurren, ezartzen diren uneak gorabehera, eta gainerako merezimenduei dagokienean, eskabideak aurkezteko azken eguna artekoak soilik zenbatuko dira. Hala ere, berariazko deialdiek hizkuntza probak egitea ezartzen badute, horiek egitetik eskura daitezkeen merezimenduak zenbatzeko, probaren edo proben eguna hartuko da kontuan.
  - i) Basauriko Udalean eskainitako zerbitzuak alegatu egin behar dira, baina interesdunek ez daukate horiek egiaztatu beharrik, ofizioz zenbatuko baititu Administrazio horrek berak. Gainerako Herri Administrazioetan egindako zerbitzuak haietako bakoitzak horretarako duen eredian egiaztatuko dira. Edozein kasutan, lan egindako aldiak zein Kidego edo Eskalatan, Azpieskala eta Klasetan edo Kategoriatan egin diren zehaztu beharko da. Alegatu eta egiaztatu nahi diren zerbitzuak Basauriko Udaletik kanpokoak badira, lanbide sailkapeneko talde edo azpitalde bat baino gehiagotara edo Kidego edo Eskala desberdinetara irekiak dauden plazetan eginak, eta lanpostua irekia izate hori ez badago jasota eskainitako zerbitzuen ziurtagirian, hori ziurtatzen duen agiriaren kopia aurkeztu beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Administrazioan edo Toki Administrazioan eskainitako zerbitzuak baliokidetzat hartzen dira, uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak jasotzen dituen baldintzetan (Dekretu horren bitartez ezartzen dira Euskal Administrazio Publikoen Kidego

eta Eskalen arteko baliokidetzak). Hori horrela izanik ere, otsailaren 25eko 1/2004 Legeak ezartzen dituen eguneratzeak egingo dira (azken lege horretan jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Kidegoen eta Eskalen antolamendua).

- j) Deialdi bakoitzeko berariazko oinarriek hala aurreikusten dutenean, eta ezartzen diren baremoen arabera, haietan ezartzen den informatikako jakintza maila merezimendu gisa balioztatuko da, Euskadiko Informazio Gizartearen Planak KZguneetan eskura jartzen dituen moduluak lortzeko hautapropa gaindituz. Modulu horien gainditzea IT Txartelaren egiaztatze sistemaren bitartez egingo da. Geroagoko bertsioen egiaztapenek aurreko bertsioenak baliogabetuko dituzte. Dena den, Erakunde Ofizialek eta Zentro homologatuek luzatutako egiaztagirien bitartez informatikako jakintza egiaztatu daiteke ere. Modulu beraren oinarriko bertsioa eta bertsio aurreratua egiaztatzen diren kasuetan, azken hau soilik balioztatu ahal izango da. Oposizio fasean egindako azken probaren behin behineko emaitzak argitaratu eta hamar laneguneko epeko azken eguna izango da Informatikako jakintza maila onartu eta balioztatzeko erreferentzia data.

4. Oposizio faseko probak:

- a) Deialdi bakoitzaren berariazko oinarrietan zehazten diren probak izango ditu oposizio faseak.
  - b) Txanda bakoitzeko hautagaiei behin bakarrik egingo zaie deia proba bakoitzerako. Aparteko egoerak justifikatu egin beharko dira eta dagokien Kalifikazio Epaimahaiak balioetsiko ditu. Identifikaziorako, agiri hauetakoren bat eraman behar da hautaprobetara: NANA, pasaporte edo gidabaimena, edo, atzerritarren kasuan, agiri baliokidea.
  - c) Kalifikazio Epaimahaiak erabakiko dituzte probak egiteko arrazoizko denbora eta baliabide egokitzapenak, hautagai ezinduek eskabidean eskatutakoak, betiere egokitzapen horiekin hautaprobaren edukia hutsaldu gabe eta maila jaitsi edo urritu gabe.
  - d) Proba baten behin betiko emaitzak argitaratu eta hurrengo hasi bitartean, gutxienez, hirurogeita hamabi orduko tarte utziko da eta, gehienez, berrogeita bost egun naturalekoa.
  - e) Proba bakoitzaren behin behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hautagaiek hamar laneguneko epea izango dute proba horren inguruan egoki jotzen dituzten erreklamazioak dagokien Kalifikazio Epaimahaiari aurkezteko. Erreklamazio epea amaiturik, eta aurkezten direnak ebatzi ondoren, Epaimahaiak proba bakoitzaren behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.
5. Deialdi bakoitzak bi gai zerrenda izango ditu: bata, komuna, plazaren titulazio taldeari dagokiona, eta bestea, espezifikoa, plazari berari dagokiona.
6. Barne sustapeneko sistemara aurkezten direnek, dena den, ez dituzte egin beharko deialdi bakoitzeko berariazko oinarrien arabera gai zerrendako zati komuneko edukiak jakitea balioztatzeko diren hautaprobak.
7. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzearen ondoretarako, baliokidetzea eta baliokidetasunen araubidea apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan (1997ko apirilaren 17ko «EHAA»), urriaren 6ko 263/1998 Dekretuan (1998ko urriaren 23ko «EHAA») edo baloratzekoan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera arautuko da. Euskara azterketa, nahitaezkoa zein borondatezkoa, berbera izango da hautagai guztientzat, eta planifikatu, antolatu eta garatzeko IVAP-HAEEren deialdi bateratuen sistemari jarraituko zaio.



- a) Plaza bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna, haren eskala, azpieskala eta, hala dagokionean, klasekoek betetzekoak diren lanpostuek esleituta dauzkaten hizkuntza eskakizunen artean nagusi dena izango da.  
Edozein plazatarara sartzeko, alde batera utzita dagokion hizkuntza eskakizunak derrigortasun data duen edo ez, euskara jakitea merezimendu gisa hartuko da. Deialdietako berariazko oinarri bakoitzean egiaztatutako hizkuntza eskakizunak duen ehunekoa zehaztuko da.
- b) Euskara proba:  
Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko hautaprobak egingo dira, nahitaezkoak derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna duten plazetara aurkezten direnentzat eta borondatezkoak hizkuntza eskakizunak derrigortasun datarik ez duenean.  
Hala ere, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko hautaprobak egin aurretik, dagokion Kalifikazio Epaimahaiak epe bat irekiko du aurkeztu diren plazari dagokion hizkuntza eskakizuna aurrez egiaztatuta daukaten hautagaiak hori frogatzen duen agiria ekar dezaten, eta hala egiten badute, euskara azterketa egitetik libre geratuko dira.  
Hizkuntza eskakizunak agiri hauen bitartez froga daitezke:
- a) 4. hizkuntza eskakizuna:
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanarena.
- b) 3. hizkuntza eskakizuna:
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.
  - EGA, Euskararen Gaitasun Agiria, edo ziurtagiri nahiz diploma baliokideren bat.
  - Hizkuntza Eskola Ofizialaren gaitasun mailako ziurtagiria.
  - Irakaskuntzako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanaren ziurtagiria.
- c) 2. hizkuntza eskakizuna:
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena, edo haren baliokideren bat.
  - Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila gainditu izana.
  - Irakaskuntzako 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanaren ziurtagiria.
- d) 1. hizkuntza eskakizuna:
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena, edo haren baliokideren bat. 1. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiriak indarrean egon behar du euskara proba egiten den egunean.  
Kalifikazio Epaimahaiak erabakiko du noiz egingo den euskara proba, baina betiere oposizio fasearen barruan izango da.  
Behin behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek hamar laneguneko epea izango dute euskara probaren inguruan egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.  
Erreklamazio epea amaiturik, eta aurkezten direnak ebatzi ondoren, Epaimahaiak euskara probaren behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.
8. Hautagaiak, hala nahi badu, posta elektronikoki bidez jaso ahal izango ditu dagokion deialdiko proben datak eta berak lortutako emaitzak, baldin eta aukera hori espresuki jasota geratzen bada hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkeztu duen eskabidean, eskabide eredu ofizialean azaltzen den moduan.

**HAMARGARRENA. Prozesuaren emaitza**

1. Hautaketa prozesuko fase puntuagarrietan lortutako puntuen baturak erabakiko du sailkapenaren hurrenkera. Berdinketa egonez gero, ondorengo irizpideak kontuan hartuta erabakiko da:
  - a) Oposizio fasean punturik gehien lortu duena.
  - b) Oposizio faseko azken proban punturik gehien lortu duena.
  - c) Oposizio faseko lehen proban punturik gehien lortu duena.
  - d) Lehiaketa fasean punturik gehien lortu duena.
  - e) Herri Administrazioetan zerbitzu denbora gehien egiaztatu duena, zerbitzu horiek, deialdi bakoitzaren berariazko oinarrien arabera, lehiaketa fasean balioztatzeko merezimenduak izanik.
2. Hautaketa prozesua amaitutakoan, epaimahaiak dekretu taulan argitaratuko ditu gainditu duten hautagaien behin betiko kalifikazioak, guztira lortutako puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta hautatutako pertsonak nor diren berariaz adierazita. Onartuen kopurua ezin izango da deitutako lanpostuena baino handiagoa izan, deialdian bertan hori aurreikusi ezean.
3. Epaimahaiak, Giza Baliabideen Arloaren bitartez, Alkatetza-udalburutzari bidaliko dio gainditutako pertsonen zerrenda, puntuazioaren hurrenkeran ordenatuta. Berariaz egingo du hautatutako pertsonak izendatzeko proposamena, eta proposamen hori loteslea izango da.
4. Nahitaezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak eskuratu nahi dituztenek baina euskararen azterketa (nahitaezkoa eta baztertzaila) gainditu ez dutenek, hautaketa prozesuan jarraitu ahal izango dute nahitaezkoa ez den hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan. Horrelakoetan, proba horretan eskuratutako kalifikazioa kontuan hartu eta oposizio faseko proba guztietan eskuratutako puntuak errespetatuko dira.
5. Nahitaezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak eskuratu nahi dituztenak, hizkuntza eskakizuna deialdian aurreikusi moduan egiaztatu badute baina lanpostu horretarako hautatu ezin badira, nahitaezko hizkuntza eskakizuna ez duten lanpostuen hautaketa prozesuetan hartuko dira kontuan, eta horrelakoetan, oposizio faseko proba guztietan eskuratutako puntuak errespetatuko zaizkie.
6. Nahitaezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak betetzeak izango du lehentasuna. Hautagaiaren batek nahitaezko hizkuntza eskakizuna duen lanpostuan eta nahitaezkoa ez den hizkuntza eskakizuna duen lanpostuan hautatzeko puntu nahikoa eskuratzen badu, nahitaezko hizkuntza eskakizuna duen lanpostua betetzeak izango du lehentasuna.
7. Minusbaliotasunak dituztenentzako erreserbaren txandan parte hartu baina txanda horretan hautatu ezin direnak, minusbaliotasunak dituztenentzat erreserbatu ez diren txandako hautaketa prozesuan hartuko dira kontuan, automatikoki, eta horrelakoetan oposizio faseko proba guztietan eskuratutako puntuak errespetatuko zaizkie.

**HAMAIKAGARRENA. Agiriak aurkeztea**

1. Hamabost asteguneko epean, prozesuaren emaitza udal iragarki taulan azaldu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, hautatutakoek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Udal Erregistroaren bitartez:
  - a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpultsatua.
  - b) Hautagai atzerritarrek Administrazioaren jakinarazpen bat jasoko dute. Bertan zehaztuko da beren egoeraren arabera nahitaez zein agiri aurkeztu behar dituzten.

- c) Eskala, azpieskala eta klase bakoitzera sartzeko eskatzen diren tituluaren fotokopia konpultsatua. Deialdi bakoitzaren berariazko oinarrietan aipatzen dira titulu horiek.
  - d) Zinpeko aitortpena edo hitza ematea, adieraziz norbera ez dagoela ez funtzio publikoetan jarduteko gaitasungabetuta, ez edozein Herri Administrazioetako zerbitzuetatik diziplina espediente bidez kenduta, ez eta abenduaren 26ko 53/1984 Legean herri administrazioetako langileentzat aurreikusita dauden ezintasunerako eta bateraezintasunerako lege arazoietan sartuta ere.
  - e) Ezinduentzat erreserbatutako plazetara aurkeztu direnek %33ko edo hortik gorako ezintasun gradua egiaztatu beharko dute, indarrean dauden legeen arabera, Administrazio organo eskudunak (Foru Aldundietako, Autonomia Erkidegoetako edo IMSERSOko sail eskudunak) emandako ziurtagiriaren bitartez.
  - f) Espainiako nazionalitatearik ez duten hautagaiak zinpeko aitortpena edo hitz ematea aurkeztu beharko dute, adieraziz euren Estatuan Funtzio Publikora sartzeari galarazten dien diziplina zigorrik edo kondena penarik ez dutela.
  - g) Era berean, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen (Enplegatuen Publikoaren Oinarriko Estatutua) 56. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorruta, hautatuek egiaztatu beharko dute ez daukatela oinarri hauen eta deialdi bakoitzaren berariazko oinarrien arabera dagozkien eginkizunak betetzea galarazten dien gaixotasun, akats fisiko edo psikikorik. Horretarako, dagozkien proba eta osasun azterketak egin beharko dituzte Basauriko Udalak erabakitzen duen zerbitzuetan. Horrez gain, ezindu izaera duten hautagaiak eskatzen dituzten lanpostuen berezko eginkizunak betetzeko gaitasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, Basauriko Udalaren Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuak egina.
  - h) Hautatuen behin betiko zerrenda onartzen duen eta behar diren agiriak aurkezteko hogeitun egun naturaleko epea irekitzen duen Dekretua interesdunei jakinaraziko zaie zuzenean, halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Basauriko Udalaren Enplegu Atarian argitaratuko da, bai eta, Udaletxeko iragarki taulan jarriko ere.
  - i) Eginkizunak betetzeko gaitasun fisiko eta psikikoa egiaztatzeke egin beharreko osasun proba eta azterketetarako deialdi era pertsonalizatuan egingo dira.
2. Oinarri honetako aurreko puntuetan agertzen diren egiaztagiriek jatorrizkoak edo kopia konpultsatuta izan behar dute. Kopia hauek, baliozko izateko, informazio hau eduki behar dute: data, izen-abizenak, NANA eta konpultsatzeaz arduratu denaren sinadura irakurgarria.
  3. Adierazitako agiriak aurkezteko ezintasuna behar bezala justifikatzekotan, hautagaiak deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ahal izango du, zuzenbidean onartzen den edozein frogaren bidez.
  4. Aurkezteko tokia: goian aipatzen diren agiriak Basauriko Udaleko Giza Baliabideen Zerbitzuan aurkeztuko dira.
  5. Adierazitako epe barruan, kasua ezinbestekoa izan ezean, inork agiriak aurkeztu ez baditu edo, agiriak aztertuta, 2. oinarrian eskatzen diren betekizunen bat betetzen ez duela ikusten bada, edo dagozkien eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko edo psikikorik ez badute, ezin izango da karrerako funtzionario izendatu, eta haren jarduketa guztiak deuseztatuko dira; hori gorabehera, erantzukizunen bat egon liteke hasierako eskabidean gezurren bat ipintzeagatik. Kasu horretan, hautaketa prozesuko emaitzan izandako puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordeztuko dira, aurretiaz 11.1. atalean aipatutako agiriak aurkeztuta.

## **HAMABIGARRENA. Praktika eta prestakuntza aldia**

Hala ezartzen duten deialdi espezifikoetan praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, gehienez ere urtebetekoa.

Kasu horretan, Basauriko Udalak praktiketako funtzionario izendatuko ditu Epaimahaiak 11. oinarrian ezarritakoaren arabera proposatutako hautagaiak.

Plaza batzuek praktika eta prestakuntza aldia hautaketa prozesuaren fase bat gehiago gisa ezarrita dutenez gero, mota horretako plaza bat baino gehiagotarako hautatuak izan diren hautagaiak haietako bat aukeratu beharko dute aldia hasi baino lehenago. Kasu horretan, 10. oinarriaren 4. puntuari jarraituko zaio.

Praktika aldia egiteko lortutako destinoek behin behineko izaera izango dute.

Praktika eta prestakuntza aldia aldagai hauei erreparatuz balioztatu eta kalifikatuko da:

- Eginkizunak eta betebeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokoerak.
- Ekimena.
- Ardura eta egokitzea.
- Elkarlanerako jokoerak.
- Herritarrekiko eta lankideekiko harremanak.

Ebaluazio batzordea eratuko da praktika eta prestakuntza aldia balioztatzeko, batzordeburua eta bi kide izango dituen, guztiak ere karrerako funtzionarioak.

Honela eratuko da ebaluazio batzordea:

- Batzordeburua: Giza Baliabideen sailburua, edo berak eskuordetzen duen karrerako funtzionarioa.
- Bi batzordekide, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioak. Bi kideek euren eginkizunetarako Administrazio horretako beste karrerako funtzionario batzuk eskuordetu ditzakete.

Goian aipatutako batzordekideetako batek beteko ditu idazkari lanak.

- Halaber, Langileen Batzordeak batzordekide bat gehiago aukeratu ahal izango du, hitzarekin baina botorik gabe jardungo duena.

Ebaluazio batzordean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokiak dituzten emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkaritza orekatua bermatuko da.

Ebaluazio Batzordeak Kalifikazio Epaimahaietarako ezarrita dauden jardute arau berberak izango ditu, eta praktika eta prestakuntza aldia "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioekin balioztatuko du.

Praktika aldian zehar, eta hura amaitu baino lehen, ebaluazio batzordeak aldi hori garatu den moduaren gaineko behin behineko ebaluazioa egingo du eta, ezezkoa bada, emaitza interesdunari jakinaraziko zaio. Praktika aldia amaitzean, azken ebaluazioa egingo da.

Ebaluazio Batzordeak Udalburutzari bidaliko dio, hautaketa prozesuan lortutako puntuari arabera ordenan, behin betiko zerrenda, praktika eta prestakuntza aldia gainditu duten eta lanpostuaren betekizunak betetzen dituzten hautagaiak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena presta dadin; proposamen hori Udalburutzak onartu beharko du.

Hautagaiak praktika eta prestakuntza aldia gainditzeko ez badu, Alkatetzaren Dekretu arrazoituaren bidez, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu.

### **HAMAIRUGARRENA. Izendatzea eta lanpostuaz jabetzea**

1. Kalifikazio Epaimahaiak aurreko oinarrietan ezarritakoa betez hautatu diren pertsonen behin betiko zerrenda egingo du, haietako bakoitzak lortutako destinoarekin, eta Udalburutzari helaraziko dio, Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izendatzeko proposamen gisa. Behin betiko zerrenda hori Basauriko Udalaren Enplegu Atarian eta iragarki taulan argitaratuko da.
2. Eskatutako baldintzak, honaino adierazitako moduan, betetzen dituztela egiaztatu duten hautatuen behin betiko zerrendatze bidez, Kalifikazio Epaimahaiak egindako

izendapen proposamena jasotakoan, Alkate andrearen Dekretu bidez, Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izendatuko dira aipatu zerrendan daudenak, dagozkien eskala, azpieskala eta klaseetan. Izendapenak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

3. Izendatutakoek hilabeteko epea izango dute karrerako funtzionario gisako jabetza hartzeko, izendatzeko jakinerazpena eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori beste hamabost egun naturaletan luza daiteke, izendatutakoak hala eskatuz gero eta horretarako arrazoi justifikaturik badago.
4. Ezarritako epearen barruan lanpostuaz jabetzen ez direnek, nola eta ez den tartean ezinbesteren bat, galdu egingo dituzte deialdiaren bidez lortu dituzten eskubideak Basauriko Udaleko funtzionario izateko. Kasu horietan, Epaimahaiak Alkatezari izendapen proposamen osagarri bat helaraziko dio, gainditu dutenen behin betiko zerrendan puntuen arabera hala dagokien hautagaiena. Horretarako, aipatutako gorabeheretatik hutsik geratu diren plaza adina hautagai deklaratu dira hautatu. Izendatzea proposatzen den pertsonen zerrendak haietako bakoitzari dagokion lanpostua jasoko du, eta 5.1 oinarrian Basauriko Udaleko iragarki taulan eta Enplegu Atarian argitaratuko da. Azkenik, 10. oinarrian eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

#### **HAMALAU GARRENA. Deialdiaren aurka egitea**

Deialdiaren, oinarrien eta haietatik zein Epaimahaien jardunetik eratortzen den egintza ororen aurka egin ahal izango dute interesdunek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Administrazioekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legean aurreikusitako kasu eta moduetan.

#### **HAMABOS GARRENA. Aldi baterako Lan poltsak**

1. Deialdiak ebatzi ostean, oposizio faseko hautaprobak gainditu dituzten eta deitutako plazetatik gorako kopuruetan geratzen diren hautagaiek dagozkien lan poltsak osatuko dituzte. Lan poltsa horiek aldi baterako langile beharrak betetzeko baliatuko dira eta Basauriko Udaleko lan poltsak arautzen dituen araubidean ezarritakoaren arabera kudeatuko dira. Hala ere, kontuan hartu behar da ondoko paragrafoan ezarritakoa.
2. Enplegu Publikoaren eskaintzatik sortu eta aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritako lan poltsak agortzen badira, nahitaezko eta baztertzaille diren probarik gehien gainditu dituztenek osatutako zerrendek beste lan poltsa batzuekiko lehentasuna izango dute, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran. Lehen proba nahitaezko eta baztertzaillea soilik gainditu zutenen zerrenda agortutakoan, dagokien lan poltsak baliatuko dira, haiek arautzen dituztenetan ezarritako lehentasun irizpideen arabera.

#### **Azken araua**

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako, honako hautapropa hauek indarrean dauden funtzio publikoko arauetan ezarritakoari lotuz egingo dira.

**I. ERANSKINA****ZINPEKO AITORPENA**

Nik, ..... jaunak/andreak (helbidea ....., NAN .....) Basauriko Udalaren zerbitzuko karrerako funtzionario izendatzeko ondoreetarako, zinpean aitortu dut ez nautela Herri Administrazioen zerbitzutik baztertu eta ez didatela kendu zeregin publikoak betetzeko gaitasuna, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 56.1.d) artikulua baldintzetan.  
(\* )

(\* ) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 56.1 artikulua:

«Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko beharrezko izango da baldintza hauek betetzea:

(...)

b) Diziplinako espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, Herri Administrazioei, konstituzio organoei edo Autonomia Erkidegoetako estatutu organoei dagokienez, aldi berean, ebazpen judizialaren arabera erabateko gaitasungabetzerik edo gaitasungabetze berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ezta, lan kontratuko langileen kasuan, zerbitzutik kendu edo gaitasungabetu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, gaitasungabetua edo horren pareko egoera batean egon ez izana, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik izan ez izana. (...)

Basaurin, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n.  
(Interesdunaren sinadura)